



TOKI GOBERNU BATZARRA

Bertaratutakoak:

Batzarburua: Agustin Valdivia Calvo
Maite Iglesias Sanchez
Nuria Fernandez Castrillo
Goizalde Pildain Narvaez
Estitxu Alkorta Barragan

Idazkaria: Isabel Fuertes Matxin

Data :2026/02/05, 09:00
Bilera: Ohikoa
Deialdia: 1.

GAI ZERRENDA

1.- Akta onartzea

Bertaratuek, aho batez, aurreko bilkuraren akta onartzea erabaki dute.

2.- Lasarte-Oriako inauteriak direla-eta bazkari zerbitzua emateagatiko prezio publikoaren onarpena.

Tokiko Gobernu Batzordeak 2026ko otsailaren 5ean egindako bilkuran **AHO BATEZ** honako **AKORDIOA** hartu du:

Lehenengoa.- Lasarte-Oriako inauteriak direla-eta janari-zerbitzuari dagokion prezio publikoaren testua onartzea.

Testu Erregulatzailea

1. artikulua. Prezio publikoa ezartzea.

Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzekoak, 43. artikulutik 50.era bitartekoetan ematen dizkidan eskumenak erabiliz, Lasarte-Oriako Inauteriak direla-eta bazkari-zerbitzua emateagatiko prezio publikoa ezartzen du Udal honek.

2. artikulua. Betebeharraren sorrera.

Prezio publiko honen helburua Lasarte-Oriako Inauteriak direla eta ospatzen den bazkariaren jai-jarduera eskaintzea da.

JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

Asistentes:

Presidente: Agustin Valdivia Calvo
Maite Iglesias Sanchez
Nuria Fernandez Castrillo
Goizalde Pildain Narvaez
Estitxu Alkorta Barragan

Secretaria: Isabel Fuertes Matxin

Fecha: 05/02/2026; 09:00
Sesión: Ordinaria
Convocatoria: 1ª

ORDEN DEL DÍA

1.- Aprobación de acta

Los asistentes, por unanimidad, ha acordado aprobar el acta de la sesion anterior

2.- Aprobación del precio público por la prestación del servicio de comida con motivo de los carnavales de Lasarte-Oria

La Junta de Gobierno Local en sesión ordinaria celebrada el 5 de febrero de 2026, por **UNANIMIDAD ACUERDA** lo siguiente:

Primero.- Aprobar el texto del precio público correspondiente al servicio de comida con motivo de los carnavales de Lasarte-Oria.

Texto Regulator

Artículo 1. Establecimiento del precio público.

En uso de las atribuciones conferidas en los artículos 43 a 50 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, este Ayuntamiento establece el precio público por la prestación del servicio de comida con motivo de los Carnavales de Lasarte-Oria.

Artículo 2. Nacimiento de la obligación.

El objeto de este precio público es la prestación de la actividad festiva de la comida que se celebra con motivo de los Carnavales de Lasarte-Oria.



3. artikulua. Ordaintzera behartuta dauden pertsonak.

Dagokion prezio publikoa ordaindu beharko dute prezio hori ordaindu beharreko zerbitzu edo jardueren onuradun diren pertsonak, hau da:

1) Lasarte-Oriako Inauterietako festetan egingo den bazkarian parte hartuko duten pertsonak.

4. artikulua. Zenbatekoa.

Prezio publikoaren zenbatekoa 1. Eranskinean ezarritakoa izango da.

5. artikulua. Kobrantza.

Prezio publikoa ordaintzeko betebeharra zerbitzuaren prestazioaren hasieratik sortzen da, hau da, jardueran izena emateko edo parte hartzeko eskaera egiten den unetik; Udaltzak zenbateko osoa edo partziala alde aurretik gordailutzeko eskatu ahal izango du, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 49. artikuluaekin bat etorriz.

Prezioa ordaintzera behartuta dagoenari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik zerbitzua ematen ez bada edo garatzen ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko du.

Prezio publikoa autolikidazio-erregimenean eskatu ahal izango da.

Prezio publikoengatik zorrak premiamenduprozeduraren bidez eskatuko dira.

6. artikulua. Kudeaketa.

Bazkarian parte hartuko duten pertsonen gehieneko kopurua 300 izango da.

Konpartsentzako % 70eko kupoa zehaztu da (210 parte-hartzaile), eta gainerako % 30a (90 parte-hartzaile) herritarrentzat irekita geratu da.

Jardueran izena emateko eta prezio publikoa kobratzeko gehieneko epea 5 egun balioduneko izango da, jai-egitarauan adierazitako lehen eguna baino lehen.

Jarduera hasi aurretik egin beharko da beti, eta ez da itzulketarik onartuko bertaratzen ez bada.

Artículo 3. Personas obligadas al pago.

Quedan obligados al pago del precio público correspondiente, las personas que se beneficien de los servicios o actividades por los que deba satisfacerse aquel, esto es:

1) Aquellas personas que participen en la comida a celebrar con motivo de las actividades festivas de los Carnavales de Lasarte-Oria.

Artículo 4. Cuantía.

La cuantía del precio público será la establecida en el anexo 1.

Artículo 5. Cobro.

La obligación de pagar el precio público nace desde el inicio de la prestación del servicio que constituye su objeto, entendiéndose por tal el momento en que se produce la solicitud de inscripción o de participación en la actividad; la Corporación podrá exigir el depósito previo de su importe total o parcial, conforme al artículo 49 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa.

Cuando por causas no imputables al/a la obligado/a al pago del precio, el servicio no se preste o no se desarrolle, procederá a la devolución del importe correspondiente.

El precio público podrá exigirse en régimen de autoliquidación.

Las deudas por precios públicos se exigirán por el procedimiento de apremio.

Artículo 6. Gestión.

El número máximo de participantes en la comida se establece en 300.

Se ha determinado un cupo reservado del 70% (210 participantes) para las comparsas quedando el restante 30% (90 participantes) abierto a la ciudadanía.

El plazo máximo de inscripción en la actividad y de cobro del precio público será de 5 días hábiles antes del primer día reflejado en el programa festivo.

Siempre deberá ser antes del comienzo de la actividad y no se admitirán devoluciones en caso de no asistencia.

En caso de que el día de inicio del plazo fuera inhábil, el plazo comenzará el siguiente día hábil.



Epea hasteko eguna baliogabea bada, epea hurrengo egun baliodunean hasiko da.

Konpartsak arduratuko dira parte-hartzaileen inskripzioarekin zerikusia duen guztiaz.

Konpartsa bakoitzak arduradun bat zehaztuko du, konpartsarekin zerikusia duen guztia kudeatuko duena (izena ematea eta ordaintzea).

Izena emateko instantzia bat zehaztu da, konpartsa bakoitzeko izena eman dutenen kopurua zehazteko bete beharko dena, eta Udalari jakinarazi beharko zaio Kultura eta Jai Sailaren bidez.

Ordainketa kreditu txartelaren, zordunketa txartelaren edo aurreordainketa txartelaren bidez egin beharko da (wallet digitalak, Wearables, edo gailu mugikorren bidez).

7. artikulua. Indarrean sartzea.

Prezio publikoa ezartzeko erabaki hau testu arauemaile hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Xedapen gehigarria

Prezio publikoaren zenbatekoak dagokion BEZarekin zergapetuko dira.

1. Eranskina

Bazkariaren prezio publikoa Lasarte- Oriako Inauteriak direla eta:

7,27 euro, BEZik gabe (8 euro, BEZa barne)

Bigarrena.- Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren web orrian argitaratzea

3.- Kultura saileko hainbat prezio publikoen aldaketa onartzea.

Tokiko Gobernu Batzordeak 2026ko otsailaren 5ean egindako bilkuran **AHO BATEZ** honako **AKORDIOA** hartu du:

Lehenengoa.- Kultura-zerbitzuen prezio publikoak arautzen dituen akordioaren 8.10 epigrafearen aldaketa onartzea, eta honela idatzita geratzea:

Serán las propias comparsas quienes se encargaran de todo lo relacionado con la inscripción de sus participantes.

Cada comparsa determinara un responsable que gestionara todo lo relacionada con la misma (inscripción y pago).

Se ha definido una instancia de inscripción que se deberá cumplimentar a fin de determinar el número de inscritos por comparsa y que deberá ser comunicado al Ayuntamiento a través del departamento de Cultura y Fiestas.

El pago deberá efectuarse mediante tarjeta de crédito, débito o de prepago u otras tarjetas vinculadas a las tarjetas (wallets digitales, Wearables, o a través de dispositivos móviles).

Artículo 7. Entrada en vigor.

El presente acuerdo de establecimiento de precio público entrará en vigor al día siguiente de la publicación de este texto regulador en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Disposición Adicional

Las cuantías del precio público se gravarán con el IVA correspondiente.

Anexo 1

Precio público de la comida con motivo de los Carnavales de Lasarte-Oria:

7,27 euros, sin IVA/persona asistente (8 euros con IVA).

Segundo.- Publicar el acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la página web del ayuntamiento

3.- Aprobación de la modificación de determinados precios públicos del Departamento de Cultura

La Junta de Gobierno Local en sesión ordinaria celebrada el 5 de febrero de 2026, por **UNANIMIDAD ACUERDA** lo siguiente:

Primero.- Aprobar la modificación del epígrafe 8.10 del acuerdo regulador de precios públicos de servicios culturales quedando redactado como sigue:

8.10.-SERVICIOS CULTURALES

8.10.- KULTURA ZERBITZUAK

8.10.1.- Ikuskizunetara eta Programetarako Sarrerak		8.10.1.- Entradas por asistencia a programas y espectáculos
1. KATEGORÍA Haurrentzat Ikuskizuna	4,10	1ª CATEGORÍA Espectáculo Infantil
1. KATEGORÍA 3D programazioa haurrentzat	5,10	1ª CATEGORÍA Programación en 3D Infantil
1. KATEGORÍA Bono 10 sesio haurrentzat	30,70	1ª CATEGORÍA Bono de 10 sesiones Infantil
1. KATEGORÍA Helduentzat Ikuskizuna	6,10	1ª CATEGORÍA Espectáculo Adultos
1. KATEGORÍA 3D programazioa Helduentzat	7,20	1ª CATEGORÍA Programación en 3D Adultos
1. KATEGORÍA Bono 10 sesio Helduentzat	50,20	1ª CATEGORÍA Bono de 10 sesiones Adultos
2. KATEGORÍA Haurrentzat Ikuskizuna	7,20	2ª CATEGORÍA Espectáculo Infantil
2. KATEGORÍA Helduentzat Ikuskizuna	14,30	2ª CATEGORÍA Espectáculo Adultos
3. KATEGORÍA Plataforma Ikuskizuna Difusio digitala	Kontratuaren arabera/ Según contrato	3ª CATEGORÍA Espectáculo Plataforma Difusión digital

Bigarrena.- Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren web orrian argitaratzea.

Segundo.- Publicar el acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la página web del ayuntamiento

4.Informazioa eta aholkularitza

4.Información y asesoramiento

Dirulaguntzen espedienteak izapidetzeari buruzko hainbat gai jorratu dira.

Se han tratado diversas cuestiones relativas a la tramitación de los expedientes de subvenciones.

5.- Galde-eskeak.

5.- Ruegos y preguntas.

Ez dira formulatu

No se han formulado

Bilkura bederatzia eta berrogeian amaitu da, eta akta hau egin da.

La sesión ha finalizado a las nueve y cuarenta y se ha levantado la presente acta.

O.I

Alkateak

Agustin Valdivia Calvo

Idazkariak

Isabel Fuertes Matxin

